

HITZEN

bilduma 2024



DEBAKO UDALA

s a r r e r a

Hitzek irudiak iradokitzeo gaitasuna dute, eta irudiek, aldiz, istorioak kontatzeko, hitzen beharrik gabe. Bilduma honek bi gauzak jasotzen ditu: irudimenezko munduetara garatzatzen kontakizunak eta gaztetxoek inspirazioari forma ematen dioten marrazkiak, eta baita, haurren ipuin sariketan edo “Deba 100 hitzetan” lehiaketan saritutako kontakizun eta lanak ere, sormena eta emozioa testu laburretan jasoz.

Liburuxka hau adin desberdinetako pertsona askoren sormenaren emaitza da eta guztiek idazketaren edo ilustrazioaren bidez islatu dute munduaren inguruan duten ikuspegia. Ipuinak irudi bihurtu dituzte txikienean, beste hainbat haurrek ilustrazioetatik abiatuta eman diete forma istorioei, eta nagusiek, halaber, jatorrizko kontakizunetan islatu dute beren irudimena. Horri guztiari, Debako Udalak eta Cardenas Fundazioak elkarlanean antolatzen duten “Deba 100 hitzetan” literatura lehiaketan saritutako ipuin zein istorioak gehitzen zaizkio, emozioa eta talentua lerro gutxitan jasoz.

Orrialde hauetako bakoitza espiritu sortzailearen isla da, amesteko, irudikatzeko eta kontatzeko dugun gaitasunaren testigantza txiki bat. Liburuxka hau jakin-minez irakurtzera eta barruan jasotzen dituen istorioez goatzera gonbidatzen zaitut. Gozatu irakurketaz, sortu dituztenek istorio horiei bizitza emanez gozatu duten bezainbeste.

Alazne Txurruka Allika (*Debako Alkatea*)



1. IPUINA ilustratua

DORTOKA


Dortokak bere etxean ohe bat darama
ohea eta frigorifikoa
ohea, frigorifikoa eta lanpara
ohea, frigorifikoa, lanpara eta besaulkia
ohea, frigorifikoa, lanpara, besaulkia eta hortzetako eskuila
eta baita ere
barregura,
barregura eta tristura,
barregura, tristura eta beldurra
barregura, tristura, beldurra eta jakin-mina
barregura, tristura, beldurra, jakin-mina eta poza
eta zerbait behar duenean
sartzen da etxe barrura
eta hartzen du
behar duen hura.

Egileak: **LEIRE BILBAO** eta **MAITE MUTUBERRIA**
Liburua: *“Xomorropoemak eta beste piztia batzuk”*
Argitaletxea: **Pamiela**





AIMAR AMEZTOY STEFANICA
(Lehen Saria - LH1 C1)



XUBAN ALONSO ASTIGARRAGA
(Bigarren Saria - LH1 A14)



AINHOA SEDANO
(Lehen Saria - LH2 B12)



XUBAN UDABE
(Bigarren Saria - LH2 C3)

2.

ILUSTRAZIOA

ipuin bilakatu



© 2013, jatorrizko edizioa: Albin Michel
© Ilustrazioak: Anne-Margot Ramstein eta Matthias Aregui
(Aurretik ondoren liburuko ilustrazioa - Ttartalo)

ZORIONAK GARAZI

ZORIONAK ZURI!! Garaziren gurasoak ziren, bera esnatu nahian urtebetetze eguna zuelako.

Gosaltzera joan ziren. Amak 8 kandelaz beteriko bizkotxo bat, eta beste zerbait oparitu zion. Garazik zabaldu zuenean... Tiragoma bat! esan zuen. Eskolara eramateko irrikaz zegoen; motxila hartu eta eskolara joan zen tiragomarekin. Eskolako gelan probatu egin zuen eta bota zuenean... KRA! Kristala apurtu zuen. Andereñoa sartu egin zen eta ikusi egin zuen kristala apurtu egin zela. Orduan andereñoak esan zuen... Nor izan da?

Garazi neska eskuzabala, alaia eta ausarta zen. Eskua altxatu eta bera izan zela onartu zuen. Orduan andereñoak hau esan zuen... Oso ondo Garazi zure gurasoei esango diet.

Orduan Jonek eskua altxatu eta bera izan zela esan zuen; eta Leak berriz: ez, ni izan naiz; eta Noak, berriz: ez ni izan naiz.

Horrela hasi ziren denak eta andereñoak esan zuen... Ados, ez diot inori ezer esango baina patioa garbituko duzue!!


Arratsaldea zen, oraindik bere aiton-amonen oparia falta zitzaion. Ireki zuenean... harri bat? Garazi pentsakor geratu zen zergatik oparituko zioten harri ziztrin bat. Probatu egin nahi zuen. Probatu zuenean, nabaritu zuen ez zela harri ziztrin bat, magikoa baizik. Bota zuenean... zerura joaten zen eta argia egiten zuen.

Gaua zen eta bere lagunak gonbidatu zituen merendola bat egitera. Mahaira igo zen eta esan zuen... Hau bai dela benetako oparia.

ADISKIDETASUNA!!

Garazik bizi izan zuen egunik onena izan zen, eta horrela super pozik bizi izan zen familiarekin eta lagunekin.

MIREN AGIRREZABALA UNCETABARRENECHEA
(Lehen Saria - LH3 3A16)



JON ETA LEIHOA

Larunbatean Jon izeneko mutil bat bere etxeko logelan zegoen tabletarekin jolasten. Jon mutil jatorra zen, ez zen gaiztoa. Ez zuen lagunik, beti berak bakarrik jolasten zuen. Jonek amari esan zion: “buelta bat emango dut ama”. Klean tiragoma bat topatu zuen.

Ettxera bueltatu zenean komunera joan zen eta tiragoma garbitu zuen. Urrezkoa zen, oso disdiratsua eta polita. Bere logelara joan zen eta edalontziak piramide ipini zituen. Jonek begi bat itxi eta harria bota zuen, baina edalontziari eman beharrean leihoari eman zion. Jon, beldurtuta, bere logelako armairuan sartu zen.

Amak zarata entzun zuen eta leihoa apurtuta ikusi zuen. Orduan amak Joni esan zion: “Jon, leihoa apurtu duzu, orain zure itsulapikotik dirua hartu eta leiho berri bat erosi beharko duzu”. Handik aurrera Jonek ez zuen gehiago tiragomarekin berriro jolastu.

TIAGO SALGADO HERRERA
(Bigarren Saria - LH3 3B16)

LAIA PIRATA

Bazen behin ume bat Laia izena zuena.

Aitarekin Hondar uhartean bizi zen. Aita pirata zen eta gainera, bere itsasontziko kapitaina.

Laiak egunero esaten zion aitari:

- Nik pirata izan nahi dut, zu bezala kapitaina.

Hurrengo goizean aitak bidaia bat egitera joan behar izan zuen. Orduan plan bat pentsatu zuen. Bere plana aitaren itsasontziko janaria gordetzen duten armairuaren barruan ezkutatzea zen.

Itsasontzian ezkutatuta zegoenean, entzun zuen aita eta bere lagun piratak itsasontzira sartzen ari zirela.

Itsasontzia mugitzen hasi zen eta orduan konturatu zen abiatzen hasi zirela.

Itsasoan zeudela, Laia armairutik atera zen. Marinelek eta aitak susto erraldoia hartu zuten eta aitak esan zion:

- Zer egiten duzu hemen?

Eta erantzun zion Laiak:

- Nik ere zuekin batera pirata izan nahi dut.

Bidaian aurrera jarraitu zuten. Janari guztia janda zutenez uharte batean gelditu ziren janaria bilatzeko.

Aitak joan behar izan zuen janari bila.

Bat-batean aita oihuka hasi zen, eta bila joan zirenean, uharteko pirata batzuk atxilotu zutela konturatu ziren.

Laiak piratei jarraitu zien atzetik aita nora eramaten zuten ikusteko.


Basoa zeharkatu eta uhartearen beste aldean zegoen gaztelu batera eraman zutela ikusi zuen. Lagunei abixatzera itzuli zen itsasontzira eta aitari laguntzeko plan bat egin zuten.

Inor konturatu gabe itsasontzian uhartea inguratu eta gaztelura gerturatu ziren. Laiak aitari beti egiten dion txistu berezia egin zion eta aitak kartzelako leihotik besoa atera zuen non zegoen jakiteko.

Itsasontzitik kainoikada bat bota zuten gaztelura pareta puskatzeko. Aitak zulotik ihes egin zuen eta barkoan jaso zuten igerian.

Denak elkartu eta azkar etxerako bidea hartu zuten eta Hondar uhartean denek batera festa bat egin zuten.

MALEN ULACIA REY
(Lehen Saria - LH4 4C11)



BONBA BITXIA

Duela 20 urte, Mikel eta Alazne izeneko anai-arrebak oporretan zeuden Oporton beren familiarekin. Mikel alaia eta ausarta zen, 10 urtekoa. Alazne ere alaia eta ausarta. Jolasten zebiltzan poz-pozik egun hartan hiriko parkean.

Bapatean, bonba baten eztanda entzun zuten. Hasieran ikaratu baziren ere, zer zen ikustera joan ziren. Iristean gauza distiratsu bat ikusi zuten. Gerturatzean diamante bat zela ohartu ziren!

- Mikel, etorri, etorri, diamantea da! Ikusi, ikusi! -esan zuen Alaznek.

- Benetakoa izango al da? -galdetu zion Mikelek.

Diamantea oso berezia zen. Euskal Herriko koloreak zituen: gorria, berdea eta txuria. Ondoren, etxera eraman eta aitari dena esplikatu zioten biek. Hurrengo egunean bitxitegi batera eraman zuten aztertzera. Hura sorpresa! Botere bat zuen: euskara ez zekienari euskera irakatsi eta zekienari gehiago egitera animatzen zuen.

Handik 10 egunera, oporrak amaituta, Euskal Herrira ekarri zuten.

Pozez jaso zuten euskaldunek aurkikuntza.

Hala bazan edo ez bazan sar dadila Debako plazan.

LAIA EMAZABAL JIMENEZ
(Bigarren Saria - LH4 4A8)

3.

IPUIN

lehiaketa



AMAREN LIBURUXKA

Ba al dakizu Sararen istorioa? Ez, ba nik kontatuko dizut, espero gustatzea. Orain hasiko naiz.

2020a zen Sarak 14 urte zituenean, Sara mugikorretik urrundu ezin zen horietako bat zen. Bere ama kezkatuta zegoen, horregatik oporrak bukatzean aitonaren baserrira joatea bururatu zitzaion.

- Ez ama! Ezin dut baserri batera joan! Zer pentsatuko dute nire lagunek? -Sara haserre zegoen.

- Zure hobe beharrez da; sinistu, mesedez. -Ama amore ematen hasia zen. -Aitak ere hori nahiko zuen.

- Zuk ez duzu ulertzen, utzi bakean! -malko bat isuri zuen Sarak. - Aita hemen egongo balitz ez zen hau dena gertatuko.

Kostata baina Sara poliki-poliki onartzen hasi zen. Bere ustez ezin zuen hain txarra izan, baserri bat besterik ez zen, ezta? Udako oporrak hartu zituenean, hurrengo egunean joan behar zen aitonaren etxera. Maletak egiten ari zela, ama hurbildu zitzaion eta liburuxka bat eman zion.

- Zertara dator hau ama, ez duzu pentsatuko eguneroko bat idatziko dudala, ezta?

- Ez, lasai; egunero orri bat irakurtzeko eskatuko dizut.

OPORREN HASIERA

Sara autoz zeraman bere amak. Aitonak sarrera oso ona egin zien eta segidan bere gelara joan zen. Nahiko berandu zenez afaldu eta ohera joan zen, lagunei bideodeia egin eta amak emandako liburuxkaren lehenengo orria irakurtzen hasi zen.

1997ko urtarilaren 22a da eta gaur neska berezi bat ezagutu dut. Maitane du izena eta asko gustatzen zait.

Irakurritako esaldian pentsatzen, lo hartu zuen. Ama ere Maitane deitzen zen. Berari buruz hitz egiten ariko zen? Hurrengo goizean aitona lana jarri zion, lan asko, behiei jaten ematea. Nazka asko ematen zion, baina amari zin egin zion aitona asko lagunduko ziola. Arratsaldean ere mendira joan ziren.

- Aitona, zu gogoratzen al zara nire aitaz? -galdetu zuen Sarak.

- Horixe baietz, nola ahaztuko naiz bada? Begira, istripua gertatu zenean ni, esan dezagun, ez nengoela oso ondo. Nahiko urruti bizi naizelako eta ez nengoelako bidaiatzeko moduan dena batera gertatu zen. Baina nik, borrokatzen jarraitu nuen eta zin egin nuen ez nuela bera inoiz ahaztuko.

Etxera itzultzean, motxilatik liburuxka atera eta bigarren orria irakurri zuen.

Gaur ere Maitanerekin gelditu naiz, ondoko parke batera joan gara. Maitaneri zerbait gertatzen zaio eta ez dit esan nahi, baina deskubrituko dut.

Kontu hura gero eta interesgarriagoa egiten ari zen, zer gertatuko zitzaion amari?

Gaia ahazten saiatu zen baina ezin zuen, buruari bueltak ematen hasi zen. Azkenean kontua aitona esatea bururatu zitzaion, berak seguru aski jakingo zuen.

- Aitona, galdera bat. Zein urtetan ezagutu zuen aitak ama?

- Zertara dator galdera hori? -galdetu zuen aitona.

- Begira, amak liburuxka hau eman zidan eta egunero orri bat irakurtzeko eskatu zidan. Kontua da bigarren orria aitak kezkatuta idatzi zuela, amari zerbait gertatuko balitzaio bezala.

- Ba begira, nik bai sumatu nuela pixka bat arraro. Oker ez banago 1997an izan zen. Zure aita burumakur iritsi zen etxera; jankinminarekin, zer gertatzen zitzaion galdetu nion eta berak ez zidan erantzun. Egunak pasatu zituen horrela.

- Eta gero zer gertatu zen, noiz arte iraun zuen horrela?

- Ez dakit Sara, ni oso zaharra naiz, nola gogoratuko naiz ba!

- Badaezpada ere gaur liburuxka irakurriko dut.

Iluntzean baserriaren kanpoko txoko batera abiatu zen liburuxkarekin, eta irakurtzen jarraitu zuen.

Gaur ere Maitanerekin gelditu naiz eta badirudi okerrago dagoela. Berrir ere esateko esan diot baina, ezi-nezkoa da. Pazientzia edukitzeko esan dit, ausartzen denean esango didala.

Hitz gutxi baina pista asko, pentsatu zuen Sarak. Zer gertatu zen hor? Urduri zegoen, horrela ezingo zuen loak hartu horregatik amari deitzea erabaki zuen. Ez zuen uste hartuko zuenik, eta arrazoi zuen ez zion deia hartu. Lotara abiatu zen; azkenean, berak uste baino azkarrago hartu zuen lo.

Egunak, orduak, segundoak pasatzen joan ziren eta Sara gero eta lotuago zegoen berak hasitako misterioarekin. Aitonak ere batzuetan lagundu egiten zion, nahiz eta askotan lo seko geratu. Onena zen mugikorretik eta sare sozialetatik urruntzea lortzen ari zela!

Aste bat gelditzen zen berriro ere eskolara bueltatzeko eta batez era aitonaaren baserritik joateko, triste zegoen Sara.

Misterioaren azken zatia soilik falta zen, baina potoloena, jakiteko zailena. Oraingoz hau zen bere laburpena: Aitak ama ezagutu zuen urtean, hau da, 1997an, amari arazo bat sortu zitzaiola eta ez zuela inori esaterik nahi. Aita deskubritzen hasi zen, bere etxera joaten zen bakoitzean toki guztietan erreparatzen zuen susmagarriren baten bila baina ezer. Ama ez zen ezertaz konturatzen, horregatik konfidantza hartu eta azkenean kontatu zion bere arazoa.

Asko kostatu zitzaion hori dena deskubritzea, baina azkenean lortu zuen. Misterio, beldur eta min askoren ondoren amaren arazoa jakin zuen. Amari bere lagunik onenaren aitona hil zitzaion eta asko eragin zion.

- Aitona, aitona, lortu dut, lortu dut!

- Zer gertatzen da Sara?

- Azkenengo orria irakurri dut eta dena deskubritu dut, horrek esan nahi du badakidala ze arazo zeukan amak!

AGURRA

Liburuxkaren azkenengo orria txuri zegoen, horregatik Sarari ere, aitari bezala, eguneroko bat idaztea bururatu zitzaion, pentsatu zuen horrela bere barrua hustu eta aitaz oroitzeko modu polita izango zela. Bere herrira itzultzea tokatzen zitzaion laster, baina oraindik egun bat zeukan eta egun hori topera disfrutatu nahi zuen baserrian eta aitonaarekin. Ezetz ematen zuen, baina azkenean misterioarekin aitona baserrian laguntzea ahaztu zitzaion.

- Aitona, zertan laguntzea nahi? -galdetu zioen Sarak korrika batean berarengana hurbiltzen.

- Ba begira, asko eskertuko nuke baratzean landareak landatzen lagunduko bazeni. Bazatoz?

- Noski!

Baratzean oso ondo pasatu zuten alde batera eta bestera, ureztatzen, haziak landatzen... azkenean Sara konturatzen ari zen zer ondo sentitzen zen norbaiti lagundu eta gero. Baratzean zegoela aitak esandako esaldi polit bat etorri zitzaion: "Laguna hitza laguntasunetik dator, denok behar dugu laguntza".

Oraindik ere hunkitu egiten zen hori gogoratzean baina negarrari eutsi zion. Baratzean bukatzerakoan, bazkaldu eta pixka batean liburuxkan idaztea bururatu zitzaion, baina idaztera zioala aitona gelako atera hurbildu eta ama hemen zegoela jakinarazi zion. Korrika atera zen amarengana eta dena kontatu zioen misterioa... den dena.

- Sara zerbait gogoratu dut -esan zuen aitona - zure misterioarena da.

- Zer da aitona?

- Hasieratik nekien amaren arazo edo sekretua, orain gogoratu dut! -esan zuen aitona barrez.

- Benetan!! -barrez hasi ziren denak, seguru asko aita ere bai.

Gustatu al zaizu Sararen historia? Bai? Ba nahi duzunean berriro irakurri ze bigarrenengo aldian irakurtzean askoz ere hobeto ulertzen da! Zin egiten dizut!

MAITE BEITIA
(Lehen Saria - LH5)



EUSKAL ONDAREA

Bazen behin, Debako Arriola auzoan baserri batean bizi ziren bi neba-arreba. Laia eta Izei deitzen ziren. Izeik 11 urte zituen eta oso atsegina zen. Laiak 10 urte zituen eta pixka bat bihurria zen.

Egun batean beraien amonaren etxera joan ziren. Amonak merienda prestatu zien, baina laranja falta zitzaizkion zukua egiteko eta haien bila joan zen baratzerara. Laiak amona itzuli bitartean ganbarara igotzea pentsatu zuen ezkutuan. Amonak debekatua zien joatea baina Laiak jakin-min handia zeukan zer egon ote zitekeen ganbaran.

- Komunera noa -esan zion Laiak Izeiri. Izeik bazekien azpijokoan zebilela eta jarraitu egin zion. Laia ganbarara iristean, atea zabaltu eta harrituta geratu zen. Ganbara oso handia zen eta oso iluna, beldur pixka bat ematen zuen eta koadro pila bat zeuden oso handiak. Izeik susto bat eman zion Laiari eta garrasi handi bat egin zuen.

- Zertan zabilta ganbaran? -galdetu zion Izeik arrebari. Laia ganbara behatzen hasi zen. Amonaren argazki asko zeuden, baina konturatu ziren kaxa txiki bat ere bazegoela. Kutxa barruan lepoko bat eta gutun bat zeuden. Bi haurrak elkarri begiratu zioten.

Gutuna eskuetan hartu zuten eta hau jartzen zuen:

Gu erreko gaituzte baina gutun hau irakurtzen duzuenok euskaldunen ondarea berreskuratzeko ahalmena izango duzue.

Horretarako lepoko hau, laino guztien azpitik eta sasi guztien azpitik, Deba-Itziarko leku magiko batean bota beharko duzue.

Laiak eta Izeik hori irakurri eta gero bazekiten zer egin, hor jartzen zuena egin behar zuten euskaldunen ondarea berreskuratu behar zuten. Amonak behin euskara izeneko hizkuntza zahar bat aspaldi galdua zela kontatu zien. Papereko testua behin eta berriz errepikatzen hasi ziren. Non ote zegoen toki magiko hori? Bat-batean ate zarata entzun zen. Laiak kaxa poltsikoan gorde zuen.

- Amona da! -esan zuten biek batera. Biak korrika batean behera jaitsi ziren, baina amona sukaldean zegoen.

- Non ibili zarete? -galdetu zien amonak. Biak isilik geratu ziren.

- Ganbaran egon zarete ezta? -Izeik egia esan nahi zuen baina Laia aurreratu egin zen eta ezetz esan zion.

- Amona galdera bat, zergatik ez diguzu ganbarara uzten joaten -galdetu zuen Izeik.

- Ordua zen kontatzeko. Nire birramonaren birramonaren garaitik, belaunaldiz belaunaldi, kaxatxo bat gorde da ganbaran. Baina ez nuen zuek ikustea nahi 10-11 urte eduki arte. Baina tira... irakurri duzue gutuna ezta? Badakizue orduan zer egin behar duzuen! -esan zuen amonak eta hirurek irribarre egin zuten. Hurrengo egunean asmakizuna zer izan zitekeen pentsatzen ari ziren eta beraien gurasoei galdetu zieten. Gurasoek erantzuna ez zekitela esan zieten.

- Haitzulo bat! -esan zuen Laiak bat-batean. Haitzulo bat zen laino guztien azpitik eta sasi guztien azpitik egon zitekeen lekua. Baina ze haitzulo? Gurasoei galdetu zieten berriz eta Aixako zuloa izan zitekeela esan zieten. Hara joatea pentsatu zuten.

Hurrengo goizean laurak Aixako zulora joan ziren lepokoa eta gutunarekin. Behean zeudela, lepokoa hartu... "hiru, bi, bat" esan eta lepokoa, zulotik behera bota zuten.

Kan, kan, kan... harri tartean metroak eta metroak zulotik behera erortzen entzun zen. Bapatean ez zen ezer ikusten, dena zuri-zuria zegoen. Segundo batzuetara lainoa joaten hasi zen, Laiak eta Izeik ezin zuten sinetsi ikusi zutena. Lepokoa zen, baina hegan zebilen!

- Euskaldunen ondarea eta ohiturak berreskuratu dira? -galdetu zuen Laiak.

- Laia, euskaraz hitz egiten ari zara eta gu ere bai! -oihukatu zuten hirurek, pozez.

Laiak eta Izeik, euskara eta euskal ohiturak berreskuratu zituzten eta ondarea sustatzearekin sorginen ametsa egi bihurtu zuten. Zaindu gure altxorra!

IZAR APERRIBAI LETE
(Bigarren Saria - H5)

ZER NAIZ?

Egun on! Xabi naiz, eta kalean istorioak kontatzen ditut. Nahi duzue horietako bat kontatzea? Hor doa...

Egun batean, edozein egunetan, ume bat jaio zen. Itxuraz, mutila zenez, gurasoek Alex izena jarri zioten.

Lehenengo urteetan oso zoriontsu izan zen. Ibiltzen ikasi zuen, hitz egiten... Baina, 6. mailan hasi zenean, arraro sentitzen hasi zen. Ez zen ez neska ez mutil sentitzen. Bere gurasoei kontatzea nahi zuen, baina beldur zen. Ez zekien gertatzen zitzaiona nola azaldu.

Goiz batean, indartsu sentitzen zen eta esatea erabaki zuen. Ohetik jaiki eta egongelara joaterakoan, aita eta ama telebista ikusten ari zirela konturatu zen. Albisteetan esan zuten transexuala izateagatik aita batek bere semea gaizki tratatu zuela. Orduan, Alex beldurtuta, bere gelara bueltatu zen.

Eskolarako bidean, Alexek bere aitari kontatu zion zer sentitzen zuen. Baina aita ez zion kasurik egin, telefonoz deika zebilelako.

Eskolan, denak jolas-orduan zeudenean, Alex irakaslearengana joan zen eta esan zion:

- Leire -horrela deitzen baitzen- gauza bat esan behar dizut. Azkenaldian arraro sentitu naiz, ez dakit nola sentitzen naizen, neska ala mutil.

Orduan Leirek erantzun zion:

- Zerbait esan duzu? -Leire aurikular inalanbrikoekin musika entzuten ari zen. Ez zion kasurik egin. Bigarren aldia izan zen heldu bati esaterakoan ez ziotela kasurik egiten.

Eskolatik etxera itzuli zenean, Alex bere amarengana abiatu zen. Ikusi zuenean esan zion:

- Ama, gauza bat esan behar dizut.

- Zer Alex? -amak erantzun. Alex isilik gelditu zen. Oso urduri zegoen, baina ausarta jarri eta esaten hasi zen:

- Ama...

- Uhh! Lau t'erdiak dira. Bilerara berandu iritsiko naiz! -amak presaka.

- Baina... -Alexek triste.

- Agur, Alex. Joan egin behar naiz -jarraitu zuen amak zapatak jantziz. Joan egin zen. Beste aukera bat, galdua. Orduan, aita agertu zen. Ama ez zegoela konturatu zenean, galdetu zuen:

- Alex, ama joan egin da?

- Bai, bilera batera joan da -Alexek erantzun zuen.

- Zure bilerara joan da ni gabe! Joan egin behar naiz! Agur! -aitak esan zuen.

Bat-batean, ideia bat bururatu zitzaion Alexi, ikastetxera joatea. Hor, bere aita, ama eta irakaslea egongo ziren. Ezin zuen aukera galdu. Zer esan behar zuen pentsatu zuenean, eskolara abiatu zen.

Eskolara sartu eta hirugarren pisura igo zen, hor baitzegoen bere gela. Topatu zuenean, pentsatu gabe, barrura sartu zen.

Aita, ama eta Leire irakaslea ikusi zituztenean, esan zuen Alexek:

- Gauza bat esan behar dizuet...

- Zer uste duzue gertatu zela? Zer esango zioten? Istorio honen bukaera asmatzea izango da zuen lana.

Horrelako egoerak zuek uste baino gehiagotan gertatzen dira eta behar bada zuen inguruan, urrutira joan gabe.

MIKEL ARAMBERRI LOPEZ
(Lehen Saria - LH6)



ZU IZAN

Bazen behin, Unai izeneko mutiko bat. Unai, zortzi urteko mutil senegaldarra zen eta Dakar hiriburuan bizi zen bere aita eta amarekin. Oso pozik bizi zen nahiz eta diru gutxi eduki. Unairi izugarri gustatzen zitzaion lagunekin jolastea.

Egun batean, Senegalen lurrikara bat gertatu ostean, jende asko hil zen eta horietako bat Unairen aita zen. Aita hil zenean, gauza asko aldatu ziren etxean.

Aste batzuk geroago, ama ohartu zen, ezin zuela Unai denbora gehiagoz zaindu arazo askorengatik. Adibidez, oso triste zegoen eta hain triste zegoen ez ziola Unairi kasurik egiten, ez zen lanera joaten eta horregatik ez zuten dirurik... Horregatik, Unai adopzioan uztea erabaki zuen.

Hilabete batzuk geroago, Unai, familia batek adoptatu zuen. Amak, Amaia izena zuen, aitak, Jon eta arrebak Marina. Familia, Bilbon bizi zen.

Egunak pasa ahala, Unai, Bilbora joan zen bizitzera bere familia berriarekin.

Hasieran, dena ondo zihoan, Unai, oso pozik bizi zen bere familia berriarekin. Aurrerago, lagun bat egin zuen Ekain izenekoa, gainerako familia ezagutu zuen...

Unaik, oso pozik bizi zuen bere bizitza berria, eskolara joaten hasi zen arte. Egunero, eskolatik negarrez itzultzen zen baina inork ez zekien zergatik. Egun batean, gehiago ezin zuenez, gurasoei dena kontatu zien. Antza denez, Unaik bullynga jasotzen zuen.

Gurasoek, irakasleari eman zioten bullyngaren berri baina irakasleek ez zuten ezer egin. Unairi bitartean...

- Unai! -egin zuen oihu Aritzek.

- Utzidazu bakean Aritz! -esan zion Unaik.

- Zergatik utzi behar zaitut bakean? -galdetu zion Aritzek.

- Ez zaidalako gustatzen zuk, bueno zuek, horrela tratatzea -erantzun zion Unaik.

- Ez zait axola zuri ez gustatzea -hasi zen Aritz -guk azal zuria daukagu eta zuk beltza. Ez zara gureetakoa! Goiz batean, Unaik, zuzendariarekin hitz egitea erabaki zuen baina hark ez zion kasurik egin.

Orduan, egun batean, Unaik, Marinaren makilajea hartzea erabaki zuen.

- Unai! -esan zuen Marinak harrituta - Zertan ari zara nire makilajearekin?

- Aurpegia txuriz margotu nahi dut Aritzek burlarik ez egiteko -erantzun zion Unaik.

Baina ez egin hori- esan zion Marinak - Maite zaituzten lagunak dituzu eta horiek zaren bezala maite zaituzte.

- Baina beste batzuei ez zaie naizena gustatzen -esan zion Unaik.

- Gauza bakarra esango dizut -jarraitu zuen Marinak. Ez utzi besteek esaten dizkizuten gauzek jan zaitzaten. Ikasi defendatzen, eta garrantzitsuena, zu izan. A, eta ez egin kasurik besteei.

Egun batzuk geroago, Unaik, defendatzen ikasi zuen. Inork ez zion beldurrik ematen.

- Unai! -esan zion Ekainek. Nola ikasi duzu hain azkar defendatzen?

- Marinak erakutsi dit -erantzun zion Unaik. Dena berari esker. Bueno, eta zuri esker ere bai.

- Niri? -galdetu zion Ekainek.

- Bai. Eskerrik asko nire laguna izateagatik, hasieratik nigan konfidantza izateagatik... Denagatik.

- Eskerrik asko Unai -esan zion Ekainek.

- Baina, gauza bat kontatu behar dizut -hasi zen Unai.

- Zer? -galdetu zion Ekainek.

- Gurasoek eskolaz aldatuko naute hemen jasotako tratu txarrengatik -erantzun zion Unaik.


- Baina han ere tratu txarrak ematen badizkizute? -kezkatu zen Ekain.

- Lasai Ekain, ondo egongo naiz. Ikasi dut bakarrik defendatzen, eta beste gauza garrantzitsu bat ere ikasi dut. Ni naizena izaten.

Eskola berrian, Unai oso pozik zegoen, lagun berri asko egin zituen eta ez zizkieten tratu txarrak ematen.

Unaik gauza asko ikasi zituen bere eskola zaharrean, onak eta txarrak baina garrantzitsua bat: **zu izan**.

LORE ZANGITU LASA
(Bigarren Saria - LH6)



4.

Deba
**EHUN
HITZETAN**

TENOREAK

Jaietan, bizirik egotea, bizirik sentitzearen aurkakoa da sarritan. Horregatik, musika bandak taberna eta DJen musika prefabrikatuaren aurka dihardu, akordeak akordu bihurtzen.

Musikaren handitasuna erraldoitzeko jaio zen Pepe Izagaren figura. Orainaldian, bueltaka eta bueltaka iraganera itzuliz, bizitzak aurrera jarraitzen duela erakusteko.

Iragana present den honetan, Ramon Irusta tenorearen Aria bat da arian gabiltzanon haria eta plazan kortxeak airean desegiten dira kortseak haustea beharrezkoa delako, haien "Aurtxo txikia" edo "Ama begira zazu" abestuz.

Herrietako musika bandak, XXI. mendeko Eresoinka txikiak direlako, guda galdutzat ematen ez duten iragan hurbil bateko abangoardiak.

Jada Izagaren batutarik gabe baina oraindik ere batuta, aurre egiten dion gudaroste kulturala.

IÑIGO LEGORBURU ARREGI

1. saria (euskaraz)

ARIMA

Bermiotarrak Sakoneta aldera iritsi dira "Motxo" arrantza-ontzian.

Leman den patroiak fardoak deszamatzeko toki aproposa bilatu behar du gauaren babesean. Hondartza txikia apenas seinalatua, sartu eta atera. Mugimendu kirurjikoa, prefektua.

Olatuek popatik bortitz bultzatu dute eta patroiairen fantasia onirikoa zapuztu aldi berean. Lar ordu guardian eta ametsetan sarturik du gogo nekatua.

Ontzia gehiegi hurbildu da eta hondoa jo du. Flyscharen gainetik kontrolik gabe eta istriborrera ia etzanda amaitu.

Salbamendukoak azkar iritsi eta marinela prestu atera, baina ontzia kondenaturik dago.

Saiatuko dira berriz flotarazten, baina alferrik.

Azkenik, arima galduta eta marinelez umezurtz, zeruetara altxatuko dute ontzi hegalaria izan balitz bezala.

GOTZON PLAZA JAIO

2. saria (euskaraz)

HITZORDUA CARONTEREKIN

Itziarko bidea igotzean, ez dut batere presarik, nolabait, beste ehunka aldiz arnas estua sortu didanak, oraingoan gozamen antzeko zerbait sortzen dit.

Gaurkoan, Santa Katalinako ermita talaia bihurtuko dut, baina ez Debako herriak, bere ibai, Arno mendi, Kantauri itsaso eta zeruarekin osatutako familia miresteko, baizik eta nire azken dantza, lehenarekin nolabait lotzeko, honi, zentzu bat emateko.

Abestiz beteriko burua eduki dut betidanik, bizipen eta pentsamendu orok, bertso eta melodia desberdinekin konektatu naute. Oraingoan ordea, bandera bezala ezarrita eduki dudana "*bakarrik borroka amaitzen denean irabazten da gerra*" ahapaldiak, epitafio kutsua hartu du, nekatuegi bainago beste borroka baterako.

Begi gainerako txanponak ez ahaztu.

IÑAKI PRIETO SUDUPE

Saritu gabeko herrikoen artean onena (euskaraz)

APERTURAS Y... KLABADAK!

Ambas torres sorianas empequeñecen al prisionero sintiéndose peón de una libertad que se le ha enrocado en la esperanza de volver a cabalgar en el tablero de la vida.

El escritor avanza sabiendo que está a punto de coronar un hito cultural pero en el juego final, los apuros de tiempo condicionan su profundidad de juego literario.

Cuando el funcionario, fuera de sus casillas, visita su celda el escritor titula su obra "Xake".

Pese a firmar tablas con el funcionario en jaque que debe traducir su escrito en euskera, Jon Esturo sabe que ha dado mate a la historia ajedrecística.

IÑIGO LEGORBURU ARREGI

1. saria (gaztelaniaz)

AÚN ESTAMOS A TIEMPO

El 386 de Omega (enero 2188 del calendario gregoriano), aterrizamos sobre la lámina de azufre maloliente de una playa. Temperatura: 58°C. Radiactividad: 800 Roentgen: letal. Debidamente equipados, inspeccionamos la zona. Una amplia extensión de hierba y árboles carbonizados. Después, quiosco, iglesia porticada, edificios y consistorio, parcialmente derruidos. Entre escombros hallamos una caja estanca de titanio. Dentro, septarias, colgantes votivos, barbas de ballena, una vieja batuta, y una curiosa baraja sustentada en leyendas; más un obsoleto CD que nos costó reproducir: en él, anacrónicos soldados uniformados, aporreaban rústicos tambores al son de una alegre melodía, denominada: "La Marcha de Deba".

RAFAEL BRAVO ARRIZABALAGA

2. saria (gaztelaniaz)

ARRAS DE PLOMO

Joaquín y Miguel Idiáquez, hermanos, y desafortunados marinos debarras.

Embarcaron "La Trinidad", ballenero desfondado por hielos implacables en Terranova. Después, a bordo del "María la Inglesa", sufrieron el descalabro de la Armada Invencible.

Miguel, desencantado, abjuró del mar. Joaquín, prometió a su novia Catalina desposarla con arras de oro, y se encomendó a la patente de corso de Martín Ochoa.

Tras años de piratería, abordajes y quebrantos, Joaquín volvió a Deba sin noticia previa, atesorando doblones. Desembarcó en Maxpe. Corrió a la iglesia a ofrecer el diezmo.

Había gente en el pórtico. Su hermano Miguel, trajeado; Catalina, vestida de novia.

RAFAEL BRAVO ARRIZABALAGA

Saritu gabeko herrikoen artean onena (gaztelaniaz)





HITZEN

bilduma 2024

